

6. zenbakia
2000ko otsaila


U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

uk

Jon Arretxe

Euskaraz gehien saltzen
duten idazleen artean dago
Basauriko idazle gazte hau

Rilos • Juanita Uriarte • Asier Andueza • Natura



Aitor Galbarriartu Aio

urrun heltzen gara,
urrunago heldu
nahi dugu...

...horrelaxe da bai, baina aurrera egingo badugu,
behar-beharrezkoa dugu zure laguntza, irakurle,
behar-beharrezkoa dugu zure dirulaguntza aldizkari hau kostatzen
denari -eta ez da gutxi- aurre egiteko. Bete fitxa, egin zaitetz
harpidedun, egin itzazu harpidedun zure lagun euskaldun horiek!
Urrunago helduko gara!

Bai, lagundu nahi dut!

Harpidetza arrunta: 12 euro = 2.000 pta./urte

Diru hau eman nahi dut (markatu) o 3.000 o 4.000 o 5.000 o

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta KodeaTelefonoa:.....

e-mail:.....

Kontu zenbakia (20 zenbaki) 0000 0000 00 0000000000

Fitxa hau postaz, faxez edo posta elektronikoz bidali dezakezu


UK Uribe Kostako Aldizkaria - 171 posta kutxa - 48990 GETXO

Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

rudia

Uherroia Ereagan

"Erika" petroljo-untziak eragin zuen ekologi hondamendiak erne jarri
gintuen. Ereagan "Rilos" geneukan eta erregai-depositoa haustu zitekeen
berri zabaldu zen. Zorionez, ez zen horrelakorik gertatu. Gure kostaldeak
ez dago nahi genukeen bezain garbi baina, hala ere, naturak irudi ederrak
erakusten dizkigu. Argazkian, uherroi bat Ereagan.



Bizkaiko Foru
Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILEA: Uribe Kostako Aldizkaria HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru ERREDAKZIOA: Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza ARGAZKIAK: Mikel Martinez TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron INFOGRAFIA: Guillermo Almagia

MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez ERREALIZAZIOA: Jokin Aspuru KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Sabin Ugarte, Iker Lores, Xabier Buenetxea, Itsaso

Arana, Aitor Elizegi, Algotako Bertsolari Eskola ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza PUBLIZITATEA: Irazu Sotés,

Amaia Bilbao 463 92 63, 491 13 37 ALE KOPURUA: 5.000 INPRIMATEGIA: GESTINGRAF BULEGO ORDUTEGIA: 9:00 / 13:00

Inportaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala



basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Barrukoa Taberna

Telletxe 5



ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKE-



T: 430 53 46

Sarrikobaso 15

48990

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrieriak

Ordurña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

e - mail elkarrizketa

Suitzatik, Itziar Garate Bayo

Suitza

Atzera

Aurrera

Etxera

Jaso

Intrusak

Inkri

Inprimatu

Bilatu

Stop

Helbidea:

Jendea

Interesgarria

Bilatu

Internet

e-mail

Software



• Itziar Garate Bayo

• 45 urte, getxotarra

• 1989az geroztik Suitzan bizi da

“Euren bizitzan garrantzitsuena lana da”

Suitzan bai, baina zehatz esanda, non bizi zara Itziar?

Zug-en, izen bereko kantoiaren hiriburuan. Kantoi osoak 60.000 biztanle ditu. Postaletako hiria da: lakua, mendiak... Alde zahar ederra dauka. Txikia da baina denetarik dago. Martxa gogoak izanez gero hurbil ditugu Zurich eta Lucerna.

Zertan zabilta hor? Zer egiten duzu?

Etxeko lanak egiten ditut eta gazteleerazko eskolak ere eman ditut. Lanean hasteko esperientzia eskatzen zidaten, nork esango zidan niri Lauaxeta Euskaltegian euskarazko eskolak ematen jaso nuen eskarmentuak Suitzan lana topatzeko balioko zidanik!

Noiztik bizi zara hor? Noiz arte geratzeko asmoa?

Duela hamar urte etorri nintzen, eternitate! Suitzara lan kontuak zirela etorri ginen. Nire senarra suitzarra da (beno, erdi suitzarra esan beharko nuke, aita bertakoa bada ere, ama algotarra baitu). Hemen beharrezkoa den arte geratuko gara.

Giro horretara egokitzeko, zer da gehien kostatu zaizuna?

Hizkuntza, alemana. Eta bai jendearekin harremanetan hastea ere. Hemen jendea hasieran oso itxia da baina lagun oso onak ere egin ditut hemen.

Etxetik urrun bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu, zelako gauzak?

Bada, dena. Jendea, hau da, familia, taldea, lagunak... Eta horrek suposatzen duen guztia: hitz egitea, parrandak...

Zeozero ona izango du Suitzak horrenbeste denboran bertan bizitzeko; zeintzuk dira gauza horiek?

Gehien gustatzen zaidana mendiak dira, hemen natura ederto zaintzen dute. Mendira joatea plazerra da. Udan Gorbeian egon nintzen eta hura ere... zoragarria da. Gustukoa dudan beste gauza bat garbitasuna da, inoiz negatiboa izan badaiteke ere.

Zelakoa da jendea hor? Euren izakeraz zer azpimarratuko zenuke?

Luzaroan “paradisuan” bizi izan dira, arazo larririk gabe eta sarritan ez dute ulertzen guztiak ez direla edo ezin direla eurak bezala bizi. Horregatik erreakzio batzuk gehiegizkoak iruditzen zaizkie. Gauzak apur bat aldatzen hasi dira eta, esaterako, lan arazoak hasi dira. Gainontzean gizalegezko jendea da, hau da, gauzak faborez eskatzen dituzte, hamaika aldiz esango dizute eskerrik asko... Baina beharbada azalean geratzen dira; ez dakit argi adierazten dudana.

Horko gauzetatik zer da gutxien gustatzen zaizuna?

Lan egiteko zaletasun kaltegarri gehiegizkoa. Euren bizitzan garrantzitsuena lana da.

Hara doanak zer da halabeharrez ikusi behar duena?

Lucerna bisitatu behar du halabeharrez, eta gero, onena Suitzako errepideetan zehar galtzea da.

Jose Iñaki Lobo

ikimilikiliklik

“Hartza”

Goiko argazkia Zubietan hartua dago. Bertan “Hartza” ikusi dezakezue. Nekazal

giroko Inauterietako antigoaleko pertsonaia da “Hartza” eta umeak izutzea da bere

betebeharra. Ahari-adarrez eta ardi-larruz janzten da.

uk5

ENKARTAUOK ERE DEMOKRAZIARI ZAPUTZ

Fernando Martínez Ruedak eskribatu eta Bizkaiko batzar Nagusiek (!) Enkartazioetako Museoarekin batera orain urte gutti publikatu Abellanedakoko (sic) Batzar Nagusiak izeneko liburuan gauza jakingarriak zaizkigu jasotzen, eta jakingarrienetakoak bi dira.

Batetik, Enkartazioek autonomia zabala –ezin zabalagoa– ukan zuten Bizkai barnean. Honen erakuskari gisa, zera diosku Martínez Ruedak: enkartauak Aro Modernotik barna ardura eman zutela aditzera Bizkaitik bereizi erakunde politiko osoki autonomoa eta probintzia –hots, gobernu berekia zeukan lurraldea– zirela.

Bertzetik, Enkartazioetako parte zenbait Bizkaian sartzearen kontra izan ziren eta XIX. mende hatsea arte ez ziren Enkartazioak oro Bizkaian behin betiko integratu. Hona bere hartan ekarriak Ruedaren zenbait hitz hone-taz, mendealeko eskuaraz nonbait: “Enkarterriak (sic) ibilbide berezia izan eben lurraldeko erakundeen barruan sartzeko, sartzearen aurkako eritxiak izan ziralako eta batu be berandu batu ziralako Jaurerriagaz. XVII. eta XVIII. mendeetan zehar probintzi agintearen esparrua be zehaztuz joan zan. Jaurerri osorako erankundeak –Gernikako Batzarrak eta Aldundia– indartzuz joan ziran eta gero eta agintaritza handiagoa jaso eben Bizkaia osatzen eben zatienganako. Puntu horretan be Enkarterriak jarrera sendoa azaldu eben eskualdearen jatorrizko erakundeen alde eta Gernikako Batzarraren eta Aldundiaren indar hartze horren aurka”.

Ber maneran, ahanztia da jendea 1931n Enakrtzioetako Autonomia Estatutu baten egitasmoa izan zela, nazionalista baskoek eta tradizionalista espainolistek onartu eben Lizarrako ber urteko Estatutu Baskoaren kontrakoa eta Enkartazioei bere kasa gobernatze-ko eskubidea aitortzen ziena (Espainiako Estatuaren barnean ondiko). Lei beza interesatuak Jesús eta Txomin Etxebarria Mironesen Tradiciones y costumbres de las Encartaciones obra ezin konparatuzkoa.

Ene nahiera ez da Historiaz lukezko min-

tzatzea. Halaber, proselito bokazionerik ez daukat. Hortakotz, beude hor Historiaaren ixtorio hauek. Badaukat, aldiz, bi-hiru sujetez ele egiteko intenzioea. Izan ere, zer proiektu politiko digute enkartauoi opatzen demokrata baskoek –PNV, EA eta EHkoek, alegia–? Zein dira Enkartazioez dituzten gardi eta iduria? Nago gure herriaz deus ez dutela garbi, zeren ezagutu ere ez baitute ezagutzen. Gutiziatzen dut nehoiz nehondikako aitzin iritzi gabarik eta begiak tinketz irekiak dituztela Otegi, Ibarretxe, Egibar eta holakoxe demokratek gure lurraldean barrena bidaldiren baten egin dezaten. Orduan lirakeke jabetuko hemen Olentzerorik ez dela zertan ezarri (eta berorren paratzaile handienak enkartauak berak direla jakin bada-ki. Konplexudun alaenak!), geure tradizioe eta aztura berekiak ditugula –Kantabrikoetatik hurrar daudenak–, gure herian toponimo erromantzezko aunitz daudela eta bertze hainbat kontuz. Anartean aho betean behar dugu ukan enkartauok zer den demokrazia baskoak ofrendatzen diguna: gure kultura eta nortasun funtsean erromantzezkoaren xeha- katze edo deboilatze irrazional eta erdeinaga- rria.

Bertze alde, bitxia da nola lehen Bizkaiaekin nolerabait gudukatuak ziren enkartauak oraingoan nagusiki PNV bozkatzan duten eta baskotzat daukaten bere burua. Nafarrei gauza bertsua gertatu zaieke. Lehen erresuma independente izan eta berorren fabore eta Gaztelari aitziz borrokatzetik orain espainolizale izaitera ditugu iraganak. Baina Historia kontraerranek dute obratzten.

JUAN LUIS FERNÁNDEZ GUTIÉRREZ

«Prensa ez irakurtzea erabaki dut»

“Nik uste dut irakurle elkarteak egin behar direla. Zertarako? Informazio ona elkarri pasatzeko. Iruditzen zait gaur egun botere bakarra dela. Komunikabideei buruz esaten da laugarren boterea direla, baina nik uste dut bakarra dela. Gaurko borroka guztiak lengoaia harrapatzeko borrokak edo lengoaia borrokak dira (...) Pentsak eta mass mediek oro har asko hitz egiten dute, baina oso jende gutxi sentitzen da hitzegina.”

* BERNARDO ATXAGA
ARGIA aldizkarian

data

«Azken hamarkadan jaiotakoei jarritako
izenik gehienak euskaldunak dira:
%78 mutikoei eta %64 neskei»

EMAKUMEZKOAK

1986/1996	
Leire	3.088
Amaia	2.477
Nerea	2.409
Maria	2.337
Ane	2.034
Laura	1.782
Ainhua	1.696
Andrea	1.533
Sara	1.386
Marta	1.360
Irati	1.354
Cristina	1.350
Maitane	1.343
Maddalen	1.282
Sandra	1.092
Janire	1.078
Naiara	1.047
Patricia	1.029
Maite	1.023
Ana	997

GIZONEZKOAK

1986/1996	
Mikel	4.419
Jon	4.413
Aitor	3.059
Asier	3.031
Ander	2.947
Iñigo	2.872
Iker	2.396
David	2.229
Xabier	2.169
Javier	2.168
Unai	2.127
Julen	1.919
Iñaki	1.539
Daniel	1.493
Sergio	1.493
Josu	1.492
Gorka	1.410
Borja	1.364
Eneko	1.326
Imanol	1.311



TXIPIO BAI ekologi taldeak Plentzia eta Gorlizeko beste talde batzuekin elkarlanean dihardu kostaldeko inguru hori biotopo moduan katalogatua izan dadin. Kostalde horretan espezieen aniztasuna handia da eta gainera padurak, iriak eta labarrak daude eremu txiki horretan. Honen harira, Plentziatik Gorlizeraiko ibilbidean sei informazio panel jarri dituzte bertan bizi diren animaliak identifikatu ahal izateko. Paneletan inguruneari buruzko hainbat azalpen ere badago.

San Jorge eta herengugea



Joanak eta etorriak

Goizero goizero ikusten dut argia. Egun, ordu, minutu eta segundu oro nire bihotzak aurrera egiten du. Odolaren taupada biziek blues-aren erritmoezin dantzan dira.

Gauak eta egunak, jaiotzak eta heriotzak, alaitasunak eta tristeziak bizitzan sortzen duten halako ikutu sotila tenkatuz. Bakartasunak oparitzen didan sosegu preziatua saltoka dator nigana, gora eta behera, behera eta gora eta itsasoan olatuek kolorez bustitzen naute.

USOA IRIGOIEN

Aldizkari hau...

...zure proposamenetara zabalik dago, irakurle. Bidali zure kartak, irakurri nahi duzun elkarizketa edota erreportaia hori, zure kolaborazioren bat, zure iritzia... Kontuan izango dugu

basurto
algorta S.L.
altzariak

T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78

T: 94 491 27 34

VILLABOTAS
JATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO

KANTXA
KIZOL MODA

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALENDOS
RIKI

UMEAK
GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

Jon Arretxe

Gaur egun euskaraz gehien saltzen duten idazleen artean dago. Oso mota ezberdinetako liburuekin ausartu da idazle polifazetiko hau: bidaiak, abenturak, ipuinak, hizkuntzalaritza... Ostegunak eta Ostiralak obren ondoren, ospetsu bihurtu den trilogia honen azken liburua prestatzen dabil, Larunbatak, baina lehenago Amazonian kokatuko den abenturazko eleberrria idatzi nahi du.

TESTUA: INIGO GAGO / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

“Ez gara bakarrik egoten ausartzen, ez gara bakarrik egoteko kapaz sentitzen, beldurra diogu gure buruari”

Gasteiz bizileku duen basauriar hau bibliografia zabala hasi da biltzen, artean, 36 urte baino ez dituela. Oparoa dugu Jon Arretxeren etorrria. Bidaietan esperientzia faltarik ez du, eskarmentu ederra: euskara irakasle Deustuko Unibertsitatean, Heziketa Fisiko irakasle Gasteizen, Euskal Filologia, piano ikasketak...; orain Ingeles Filologiari ekin dio. Batere ulgarria ez dena da horrenbeste karrera egin dituen pertsona batek Gasteizko giro parrandazalea horren ondo eza-gutzea.

—Ostiralak eta Ostegunak obretan esketxak ematen dute pasarte askok...
—Bai, nire lagun batek komiki nobelatutzat har daitezkeela dio. Komiki egitura dutelako izango da.
—Nola dokumentatu zara horrelakoak biltzeko?
—Bizi-esperientzia da azken batean. Ni umore klabea adierazten den mundu horretan ibiltzen naiz, aspalditik nago horretan murgilduta. Unibertsitatera sartu nintzen hamazazpi urtegaz eta oraindino ez dut urten. Unibertsitate giro golfoan ibili izan naiz beti, ez ikastunen giroan. Horrek mila esperientzia ematen ditu, estilo honetako liburu golfo bat idazteko hainbat

xelebrekeria.
—Ostegunak obran ikasle garaiko pasadizoak jaso zenituen, Ostiralak ikasteari utzi edo ez utzi bidegurutze horretan daudenei buruzko liburua da. Larunbatak rockero zaharrei buruzkoa izango dela aditu dugu.
—Bai kronologikoki Ostegunak hogeit urte inguruko unibertsitarien buruzkoa da. Ostiralak hogeita bost ingurukoena, eta Larunbatak hogeita hamar urtetan dabilzane-na. Lehen a estudiante hutsena. Ostiralak zalantza horretan daudenak, bizitzan zein bidetatik jo...; azken batean zalantza transzendental hori dutenak islatzen dira. Larunbatak, berriz, rockero zaharrena izango da, jada jokoan kanpo geratzen ari direnak, euren miseria eta kontraesan guztiekin.
—Sexua behin baino gehiagotan agertzen da Ostiralak obran.
—Bai, neure liburuetan argi eta garbi agertzen da sexua.
—Eta umorea ere oso presente dago beti.
—Hau berez umorezko trilogia da, helburua irakurleari barre eragitea da. Beti. Umore krudela, beltza edo zuria izango da, baina beti umorezko klabea. Larunbatak ere holangoa izango da, igual pixka bat umore patetikoa.

—Zeure buruaz barre egiten jakitea da...
—Heldutasun seinale, gauzak gaintitzearen seinale... Euskaldun izateagatik, barre egin behar diogu geure buruari euskaldunok. Rockero zaharrok ere horixe izateagatik egin behar diogu barre geure buruari, eta abar. Bestela, beti ibiliko gara erretxinduta eta konplexuekin.
—Norbaitek seriotan hartu du zure pasarteren bat?
—Ostegunak obrakoa serio hartuz gero jende asko mindu daiteke. Ostiralak liburuan beste horrenbeste eta berdin Larunbatak obran.
—Durangoko Azokan Ostiralak salduenetakoa izan zen, ezta?
—Hori diñoe bai. Lehenengo edizioa 4.000 alekoa izan zen. Hori pasada bat da normalean 1.500ekoa izaten delako. Hilabete eta pikuan ia agortuta dago eta bigarren ediziorako beste 3.000 ale atera behar dituzte. Oso pozik nago liburu horrek izan duen harreragaz.
—Aurrera begira zer daukazu pentsatuta, bestelako libururen bat?
—Larunbatak baino lehen, seguru-erik, Amazonian kokatutako abenturazko nobela bat idatziko


dut. Indioak izango dira protagonista, ez da hara doan zuri bat izango. Indio batek kontatuta bere herriaren bizitza, abenturak, estilo horretako liburu bat.
—Behin baino gehiagotan egon zara Amazonian.
—Bi bider egon naiz eta bigarren honetan —orain urtebete— barru-barrutik ezagutu ditut, euren erre-alitatea ikusi, entzun eta irakurri dut. Oso material ona daukat nobela polit-polita idazteko.
—Zeren arabera hautatzen dituzu munduan zeharreko bidaiak horiek?
—Aldikadak izaten dira, edo uste-kabeak. Egun batean aldizkari, egunkari edo horrelako batean agertzen den zeozer ikusi eta argitxo bat pizten zait buruan.
—Eta beti bakarrik egiten dituzu?
—Horrelako bidaiak luzeak bai, beti

bakarrik.
—Bakarrik joateko arrazoia zein da?
—Bakardadea. Proba egin dezakezu, egun batean lagunekin joan mendira eta hurrengo batean bakarrik joan eta egun osoa pasatu. Oso desberdina da; eta hiru hilabete badira, ba, pentsa...
—Ihesbidea ala zeozerren bilaketa dira bidaiok?
—Ihesbidea ez, horrelakoak norbera gustura ez dagoenean egiten direlako. Ni hemen gustura bizi naiz, oso pozik. Bereko behar bat dut, barruko bultzada bat. Ez diot arrazoi logikorik ikusten. Eta kanpoan topatzen dudana bizimodu horrek hemengo bizimodua are gehiago estimatzen laguntzen dit.
—Zergatik diogu horrenbesteko beldurra bakardadeari?

—Geure burua ezagutzen ez dugulako da. Gaintitu beharreko beldurra da. Ez gara bakarrik egoten ausartzen, ez gara bakarrik egoteko kapaz sentitzen. Beldurra diogu geure buruari. Nik gaintitza lortu nuen eta oso positiboa izan zen.
—Non egongo da Jon Arretxe hamar urte barru?
—Hori ez da existitzen. Existitzen dira gaur, bihar, eta gehienez ere, hamar egun barru. n

“Euskaldun izateagatik, barre egin behar diogu geure buruari euskaldunok”





Itsasoak ekarri zuena

Bukatu da Rilos itsas-ontziaren odisea.

Punta Mayor eta Alonso de Chaves atoi-untziek pixkanaka-pixkanaka lehenik, ahalean gero, kubatar untzia bere lozorrotik ateratzea lortu zuten urtarilaren 23ko goizaldean.

Harridurazko aurpegien aurrean, Rilos-ek adio esan zion Ereagako hondartzari.

TESTUA: ERREDAKZIOA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

Ereagako hondartza lehengo moduan geratu da. Egun batzuk lehenago aparkalekuan eta inguruetan pilatzen ziren autoen arrastorik ez dago; ikusminez bertara hurbiltzen ziren bisitariak desagertu egin dira. Ikuskizuna bukatu da.

Getxoko hondartzak bere erakargarritasuna galdu zuen Rilos untziak Santurtzirako bidea hartu zuen egunean. Hilabete inguru egon da Maltako bandera baina Kubako tripulazioa zuen merkantzia untzia Getxoko hondartzan hondartuta, Lothar ekaitzak abenduaren 27an hona ekarri zuenetik. Habanatik zetorren siderurgia materialen karga Santurtzin uzteko asmoz. Portuan lotuta utzi zuten untzia baina haizearen ondorioz, lokarriak hautsi eta Rilos-en abenturari hasiera eman zitzaion. Ez zituen zazpi itsasoak zeharkatu, ezta bidetik lamiarik edota aspaldi galdutako untzien arrastorik topatu ere. Berea bidaia laburragoa izan zen eta behin Getxora helduta, Ereaga hondartzan gelditzea erabaki

zuen, sendo hondartuta gainera. Batzuek turistak erakartzeko estrategia hutsa zela uste zuten; itsasoa hobeto ezagutzen dutenek, berriz, bazekiten tripulazioarentzat zeinen kaltegarri izan zitekeen hori. Kontua da nazioartean Erika-ren istripuak orri asko bete arren, Rilos-ek hedabideen eta jendearen arreta erakartzea lortu zuela. Hondartzara egunero hurbiltzen diren marinel zaharrek bazeukaten zertaz hitz egin.

Naufragioak Ereagan

Ez da Rilos-ena Ereagak ezagutu duen istripu bakarra. Abrako portua eraiki zenetik sei itsasuntzi harkaitzetan utzi ditu itsasoak. 1893an Primera Palma Mallorkako untzia hondartzan trabatuta geratu zen eta tripulazioak hiru egun eman zituen lurreratu ezinik. Kapitainaren semea itsasoa galdu zen eta beste marinel bat larriki zauritua suertatu zen. 1910ean Gipuzkoa untziak urpean bukatu zuen. Hiru marinel baino ez ziren salbatu eta gaur egun itsasbehera dagoenean

oraindik ikus daitezke untziaren arrastoak. 1917an Triton eta Ciscar untziak urperatu ziren. Tripulazioak ez zuen kalterik jasan baina urte hartan erabaki zen Ereagan bertan salbamendu talde bat jartzea.

1924an Maria Mercedes izenekoa hondartuta gelditu eta berehala suntsitu zuten olatuek. Baina istripu guztietatik larriena urtebete geroago gertatu zen. Cisne izeneko untzia tripulazio osoarekin batera itsasoa desagertu zen hondartzan zeudenen begiradaren aurrean. Hura izan zen Ereagak ezagututako azken hondamendia, harik eta Rilos heldu zen arte.

Ez zen lan erraza berriro untzia uretaratzea eta horregatik urtarileko 23ko marea biziak arte itxarotea zela onena erabaki zuten Itsas salbamendukoek. Baina Erika gogoan, neurri bezala itsasuntziko erregaia hustu zuten, uretaratzean arazorik egonez gero ekologi hondamendirik ez gertatzeko. Erreskate lanen inguruan ezatabaida bat baino

gehiago piztu zen. Batetik, norbaitek ordainketen ardura hartu beharra zeukan. Bestetik, nahiz marea biziak arte itxaron, ezerk ez zien bermatzen merkantzia untzia onik atera zitekeenik. Bitartean, tripulazioa egunerokotasunari eusten saiatu zen. Hasierako marineletatik hamasei Kubara bidali zituzten, untzian zeregin handirik ez zutela eta. Gainontzekoek Ereagan hondartuta eman zioten ongietorri urteberriari.

Eta, azkenik, heldu zen eguna. Jende ugari pilatu zen hondartza inguruetan Rilos-ek ausardia handiz hasitako abenturaren amaiera ikusi asmoz. Punta Mayor eta Alonso de Chaves atoi-untziak prest zeuden Rilos-i nagikeria kentzeko baina bazirudien honek ez zuela itsasoratze gogo handirik. Izan ere, elkarlotzen zituzten kableak hautsi eta bertan behera gelditu zen erreskatea. Hurrengo goizaldera arte itxaron beharko zuten.

Patuaren erantzuna zela hura uste zuten batzuek. Agian Rilos-



EGUTEGIA

Abenduaren 27a
Ekaitzak Rilos Santurtziko portura lotzen zituen lokarriak apurtu eta Ereagako hondartzaraino bultzatu du.

Abenduaren 28a
Erreskate lanak eten egin dituzte, kaskoa hautsi daitekeelakoan. Marinelak untzian dira.

Abenduaren 29a
Ereaga hainbat lagunen topagune bihurtu da Rilos-en naufragioa dela eta.

Urtarrilaren 3a
Untzia ateratzeko marea biziak itxaroteko erabakia hartu da. Modu berean balizko ekologi hondamendia gerta daitekeelakoan untziaren depositoa hustetzea erabaki dute; 300 tona gasolio daude bertan.

Urtarrilaren 4a
Adituek bonbeo ekipoak ezartzen dituzte Rilosen.

Urtarrilak 10
Marinel kubatarrak untzia utzi eta jaiterrira itzuli dira.

Urtarrilaren 21a
Goizaldeko laurak aldera atoi-untziek Rilos Ereagatik ateratzen saiatu dira, baina kableak hautsi egin dira. Biharamunean lortuko dute.

NAUFRAGIOAK
EREAGAN

1893
PRIMERA PALMA

1910
GUIPUZCOA

1917
TRITON eta CISCAR

1924
MARIA MERCEDES

1925
EL CISNE

1999
RILOS



en etorkizuna Ereaga zen. Baina aspaldi itsasoan ibili direnentzat, itsasoratu ezinik dabilen untzi bat baino okerragorik ez dago. Rilos-en tokia itsasoan zegoen eta ez beste inon. Hori bera pentsatzen zuten itsas salbamendukoek eta 23an, neke ugari-
ren ostean, merkantzia untziak agur esan zuen. Santurtzi zuen hurrengo portua eta bertan jarraitzen du.

Datozen asteetan teknikariek merkantzia ontziak zenbaterainoko kalteak izan dituen aztertuko dute eta itsasoratzeko moduan dagoen ala ez erabaki. Egun hauetan erakutsitako ausardia garesti atera dakioko untzi kubatarrari azkenekoa gertatzen bada: Rilos-ek txatarrarako izango da.

Hilabete pare bat gehiago Ereagan hondartuta egon izan balitz, jendea horretara ez ote zen ohituko galdetuko dute batek baino gehiagok. Ezohikotasunak jota hurbildu zen jendea Ereagara, ia jainko bihurtutako Rilos ontzia mirestera. Orain Santurtzin dela, ia inor ez da berataz oroitzen eta txatartegian bukatu edo ez, urte batzuk barru Rilos-ena pasadizo hutsa izango da. n

Zure
erz

Publizitatea
aetatzilub

Hemen
hemen

491 13 37
73 31 194

IRAKURZALEEN TXOKOA

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA

OTSAILEKO LIBURUA: "ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION"

LOURDES OÑEDERRA. EREIN.

MARTXOAREN 2AN AUTOREAREKIN SOLASALDIA.

ALGORTAKO KULTUR ETXEAN, URGULL KALEAN, 7:30ETAN.

MARTXOKO LIBURUA: "PASAIA BLUES"

HARKAITZ CANO. SUSA.

APIRILAREN 4AN IDAZLEAREN LIBURUAREN AURKEZPENA ETA SOLASALDIA.

ALGORTAKO KULTUR ETXEAN, URGULL KALEAN, 7:30ETAN.

Argazki-sorta eder honen egilea José Iganacio Lobo duzue, gure aldizkariko kolaboratzailea eta argazkilari paregabea. Aspalditik dabil hainbat herritako Inauteriak eta ohiturak erretratatzen.

Lizartza (1998)



Zubieta 1998



Donibane Garazi (1996)



Antzuola (1998)



Tolosa (1997)



Zutabe honetan goitik behera: Altsasu (1997), Markina (1993) eta Sardinaren hileta (1994)



Ezkerreko zutabea goitik behera: Unanua (1994), Zubieta (1999) eta Barkoxe (1996)

NIRE EGUNKARIA

IÑAKI UGARTEBURU

URRIAK 13. Hogeita hamabost urterekin egunkari ezkutua idazten hastea ere! Tira, lotsa pixka bat ematen dit baina saiatuko naiz agindua betetzen, ahaleginik egiten ez dudala leporatu ez diezadaten, besterik ez bada ere. Gainera, egunero bost-hamar lerro idaztea ez da zaila, betetzea behintzat. Horra gaurkoa egina. Bihar osteguna. Banoa ohera.

URRIAK 14. Ezin diot inori aitortu langintza honetan nabilenik. Izan ere, psikiatrak egunero lerro batzuk idazteko agindu didala eta ni zintzo-zintzo agindua betetzen ari naizela aitortzea ez da samurra... Gaur izan dut lehen aldiz talde-terapia. Eta, egia esan, ergelkeria galanta da hori. Hara doazenak denak daude jota, ez daude sano burutik. Nik, berriz, aita ematen dut: denei lezioak ematen. Neuk egin diot lan erdia psikiatrari! Horra gaurko etxeko lana beteta, errazal!

URRIAK 15. Ostirala. Ez dakit zer idatzi. Egia esan, gauza asko datozkit burura baina ni ez naiz idazle jaio: ideiak etorri eta joan egiten dira, sentipenak-eta dira, zailak idazten... Batzuek lotsa apur bat ematen didate...

URRIAK 18. Bihar berriro dut kontsulta. Baietz esango diot, bulegora lanera itzuliko naizela. Ez dakit zer aurpegi jarri kalean batera eta bestera nabilela norbaitekin topo egiten dudanean. "Zer dugu, ba? Baja hartuta?" Eta? "Bai, nekea, badakizu: estresa..." Ditosozko estresa, horrekin konpontzen dugu dena. Estresatua baldin bazaude, langile fina zaren seinale. Nola hasiko naiz ni kontatzen gauak negarrez ematen nituela. Nahikoa lan daukat neure buruari gogorarazten nola gau hartan euripean zirarik gabe kirol portu berriko moila luze horretan atzera eta aurrera ibili nintzen itsasora begira... Behintzat neure burua akabatzeko gogoa duten horietako bat banintz: baina horixe ere ez. Txepela halakoa...

URRIAK 20. Min egin dit gaur medikuondo horrek. Lasai asko bizi naiz ni eta ez daukat zertan kontu zaharrak harrotzen ibili. Baina Olatzena kontatu diot hala ere, patxada handiz gainera. Nola lanean elkar ezagutu genuen... Orduan artean umea nintzen ni, hogeita hiru urte... izarrei begira bizi nintzen. Gerora konturatu naiz harreman hura ez zela naturala. Olatzek hogeita hamalau urte zituen. Senarrarengandik banatu eta aldendua baina senar horrek ezin zuen etsi eta atzetik zebilkinson. Horregatik etorri zen Bizkaiko mutur honetara. Ni, berriz, salbadore, kontsolatzaile... Kaikua halakoa! Nekatuta nago. Eta bihar goiz jaiki beharra daukat.

URRIAK 21. Aitzakia besterik ez nuen bart gehiagorik ez idazteko. Baina idatziko dut, psikiatra horren matrakarik ez entzuteko behintzat... Ea bihar istripuren bat edo... eta kontsultarik gabe gera naitekeen. Ez dut batere gustuko talde-terapia ziztrin hori... Olatz... Kontxo, nik ere eman nion zerbait berari, ezta? "Alderantziz behar luke", esaten zidan nire lehen harremana zela aitortu nionean. Bera ongi erabilia eta ni artean urratu gabea. Eta nire gardentasun harekin liluratuta zegoen,

“Har nazazu”, esaten zidan, “har nazazu”. Eta nik orduan ere zintzo erantzun eta hartu egiten nuen...

jakina! “Ez duzu hori egin beharrik”, esan nion musuka gerritik behera hasi zitzaidanean. “Zeuk ere egin didazu baina”, erantzun berak. Ez dakit ez ote nintzen antzerki hutsa egiten ari... baina halaxe ateratzen zitzaidan.

URRIAK 25. Bihar kontsulta berriro. Hobe dut aitzakiatan ez ibili. Garbi esango diot ostegunean ez nuela joan nahi eta horregatik ez nintzela joan. Eta kito! Neure kontua da hori, ezta? Ez al dizkiot bada saioak zintzo asko ordaintzen bere Ama Mesedeetakoaren kaleko kontsulta hori eta bere txalet berria —zergatik kontatzen dizkit niri halakoak, harroputz zantar horrek— ordaintzeko? Diru beltzez gainera... fakturarik ere ez dit egiten eta! Hogeitaka urterekin banekien nik jolas horietan zer izan daitekeen, baina behin ere ez nion ezer aipatu Olatzi. Gezurra dirudi, nola itsutu daitekeen bat sexu jolasean. “Har nazazu”, esaten zidan, “har nazazu”. Eta nik orduan ere zintzo erantzun eta hartu egiten nuen eta nire haziaren indarraz ez nintzen oroitzen, edo gai ez nintzela irudikatzen, edo... Ez dakit. Egun batean biluzik ikusi nahi, sabelaldea ukitu nahi... eta berak bizkarra eman zidan. Orduan konturatu nintzen zerbait bazuela. Gau hartan alde egin nuen. Ez nuen ezer pentsatu nahi. Alde egin nuen, orain hamar urte. Noizean behin ikara moduko bat etortzen zait bizkarrean behera. Telefono hotsa denean bera izan daitekeela pentsatu izan dut batzuetan. Kalean dabiltzan hamar urteko neska-mutikoei begira geratzen naiz behin baino gehiagotan. Nire antza dutela etortzen zait gogora. Ez dit behin ere deitu. Ez dakit Algortan bizi den ere. Baina Algortara barik Bilbora nahiago dudala esaten dudanean, aitzakiatan ibili beharra izaten dut ingurukoekin. Algortan zer dago, ba, merezi duenik? Hamar urteko neska-mutikoak. Putza! Ni bai txepela... Uste dut egutegi hau...



Iñaki Ugarteburu (Bergara 1954) Euskal Filologia sailako irakaslea da EHUn. Erromon bizi da azken hemezortzi urteotan. Baditu literaturan hainbat sari irabaziak (Irun Hiria 1983 eta Santurtziko Kontzejua 1983 dira aipagarrienak). Azken urte hauetan hainbat itzulpen egin ditu: besteak beste, Italo Calvinoren “Bizkonde erdibitua” edo Isabel-Clara Simóren gazte literaturako hainbat lan.

antzerkia

manolito laubegi

ARGAZIAK: MIKEL M. / TESTUA: J.A.

Manolito laubegi

Getxoko Bego Losadak eta Leire Egurrolak euskaratu dute Manolito laubegi antzezlana

Tamalez ez da sarritan gertatzen; euskarazko antzezlanek ez dituzte aretoak betetzen. Kultur Etxeak Izarretako bitakora Algortara ekarri zuenean ez ziren hogei baino gehiago izango hara hurbildu zirenak. Zorionez, urtarrilaren 21ean ez zen hori gertatu, aurkakoa baino; Getxo Antzokia ikuslez lepo zegoen, hara bildu zen jendetza zela-eta obraren hasiera atzeratu egin behar izan zuten. Zergatia: Ados taldearen eskutik Manolito gafotas antzezlanaren euskarazko bertsioaren estreinaldia. Honen inguruan zer esan handia dute Lodosa neba-arrebek. Hiru izan dira lan horretan parte hartu dutenak: Garbiñe, zuzendari lanetan, Koldo Manolitorena egiten eta Bego euskarazko testuaren moldaketan.

Aipatu bezala, Bego Losadak euskaratu du Manolito Laubegi, baina ez berak bakarrik, lan hau Leire Egurrolarekin batera egin du eta. Ez da arlo honetan euren lehenengo esperientzia, aurretik Desperrados, Lamiak eta beste zenbait antzezlan euskaratuak dituzte. Baina azkeneko hau gatxena suertatu zaie, hamaika buruhauste eragin die. Manolito, protagonista, umore berezia duen pertsonaia da, ateraldi bitxiak ditu, gainera Begoren hitzetan “oso pertsonaia espainola da”, Madrilgo Carabanchel auzo umilean bizi da. Berak eta beraren lagunek hango hizkera erabiltzen dute: como mola, se me va la olla eta horrelako esapideak. Horrelako berbak, espresioak eta jerga euskaratzea ez da lan txikerra izan.

Gainera, gauza bat da paperean

idazten dena eta beste bat eskenatokian esaten dena; kasu honetan alderik ia ez dagoela kontatu digute, hori bai, aktoreek lana “gipuzkeratu” dietela diote barre batzuk tartean direla. Normala izango da aktore gehienak gipuzkoarrak direlako, eta ez direnak Donostian bizi dira.

Bakoitzaren lanak libre utzitako ordu askotako emaitzarekin pozik daude Bego eta Leire, eta jendearen erantzuna ikusita are gehiago. Gu, bitartean, euren hurrengo ekarpenaren zain geratzen gara. »



Goian, Bego Losada eta Leire Egurrola; azpian, aktoreak lanean



“Aretxa”

Hamasei urtegaz hasi zen harriak jasotzen Jose Ramon, gaur egun 58 urte dauzka. Harrezkero eta ilusio berberaz hamaika lanbidetan ibili da herri-kirolen inguruan.

—Beteranoa zaitugu...

—Herri-kiroletan bizi guztian egon naiz, hamasei urte nituenean hasi eta gaur arte. Gizon eta ume 50 baino gehiago entrenatu ditut eta orain, zahartzaroan, Leioako eskolak eskatuta, bost gazte entrena-tzen ditut, lau mutil eta neska bat. Urtebete inguru daroat zeregin horretan.

—Harria jasotzen hasteko adinik ba al dago?

—Ez. Nire denboran asko solda-dutzatik etorri ostean hasten ziren. Hain gazte hastea ez da normala. Ni hamasei urtegaz hasi nintzen harri kokkor bategaz, Faduran.

—Eta jarraitzen duzu.

—Beti, zenbat ikusi dudan ordutik hona! Futbolik ez dut ikusi inoiz, baina herri kirolak, oster, zenbat eta zaharrago gehiago gustatzen zait. Sano gustatzen zait.

—Itzal izeneko neskato bat entre-natzen zabilta, ezta?

—Bai eta ondo-ondo egiten du, teknika dauka eta oso ona gainera. Bost urte daroaz entrenatzen.

—Lehendik ere neskaren bat ibili al da kirol honetan?

—Bai, Leioan bertan orain urte batzuk beste neska bat ibili zen. Baina hura argalegia zen eta egurrezko edo pisu gutxiko gauze-kin ibili zen. Honek bai, honek gauzak egiten ditu.

Neska izanda etorkizunik badu?

Neska denez, ezingo du ehun kilo-ko harria hartu, ez dut uste; denboragaz ikusiko da.

—Eta entrenatzen duzun beste mutikoa, Aresti?

—Nire bizitza osoan ez dut horrelakorik ikusi eta atera kontuak zenbat ikusi dudan berrogei urtetan. Urtebete daroa nigaz eta oraindino harritu egiten naiz haren indarra ikusita. Hamabost urte bete ditu eta ikaratuta nauka. Leioan Astobietaren marka ondu du ehun kiloko kubikoaz eta kubikoa dagoenik txarrena da. Nire sasoiaren baten batek esan izan balu hori egiten duen hamabost urteko mutil bat

“Aposturik gabe ez dago ezer kirol honetan”

bazegoela, ez zioten sinestuko eta Arestik horrelako gauzak egiten ditu. Edozein harri maneatzeko indarra dauka. Arestik harrituta uzten ditu denak; Zelai bera ere ikaratuta dago.

—Harrijasotzaile ibili zinenetik aldaketarik izan da?

—Bai, alde handia dago. Orain jendea hobeto prestatzen da, gutxiago daude baina hobeto prestatuta. Guk ez genuen ezer jakin, jan ondo eta besterik ez.

—Zergatik daude hain harrijasotzaile gutxi?

—Posturak, jokuak, ez dakit zergatik, baina orain ez da horrelakorik egiten eta niretzat hori izan da dena, akuilua izan da. Beste batzuk apostuen kontra daude baina, nire ustez, apostu barik ez dago ezer kirol honetan. Lehen, noiz edo noiz, batek beste baten kontra postura egiten zuen eta jendea plazan egoten zen baten alde, bestearen alde eta bestelako giroa egoten zen. Orain jokorik ez dagoenez, jendeak ez dauka afiziorik. Idi-probetara jendea joaten da jokua egiten delako. Sarrera ordaintzen dute, ondo gainera, eta ikustera doaz. Baina harrijasotzean 100 pezetatan jartzen baduzu sarrera ez doa inor, nire moduko dozena erdi baino ez.

—Gazteek, hala ere, ilusioa dute.

—Bai, ilusio handia. Umeek ilusiorik ez badute alferrik gabiltza.

—Markak hausten jarraitzen dute askok.

—Bai, baina nahiz eta askok ezer esan ez, oraingo harriak ez dira harriak. Beruna sartuta daukate eta lehengo markak horrela hautsi dira, ez bakarrik gizonak hobeto prestatuta daudelako. Harrijasotzea bada, harria jaso behar da eta besterik ez. Harriak konparatzen badituzu askoz errazagoa da beruna daukana jasot-



zea. Hortik ere zaletasuna zuen jendea sano hoztu da graziazik ez daukalako.

—Eta zer irabazten da markekin? —Fama handia daukanak diru asko irabazten du baina gutxi dira horiek. Horretarako zaletasuna eduki behar da, gaur inoiz baino handiagoa, bestela denak joaten dira. Markak egiten dira baina jendeak ez du apreziatzen. Itzalen kasuan, adibidez, orain 30 urte denak ikaratuta egongo ziren bere teknikagaz. Arestigaz berdin. Lehen bestelakoa zen.

—Pikeak-eta egongo ziren orduan.

—Bai, asko. Eta jendeak denak jarraitzen zituen baina orain, berriz, ez, eta jokua pentsatu ere ez. Lehen zezenplazak bete egiten ziren. Azpeitian nik jende gehiago sartu ezinik ikusi izan dut plaza eta orain herena baino ez betetzeari

sarrera ona esaten diote.

—Doping kasuak ere egon dira harri jasotzean.


—Ez dut esango ez dagoenik, baina nik ez dut ezagutu inoiz. Baten batek positibo eman duela entzun dut, baina ez dakit. Abereekaz lehen droga nahiko ibiltzen zen. Gizonen artean ez dut esango baten batek egin ez duenik, baina normalean ez da egoten. Ikusi, ez dut inoiz ikusi.

—Eta aurrera begira, entrenatzaile moduan jarraituko duzu? Erronkarik bai?

—Gustura nago, batez ere Aresti eta Itzalegaz. Besteek adin bera dute baina denbora gehiago behar izango dute. Baina ni pozik nago eta zeozer egingo dugula pentsatzen dut. Orain erakustaldiak egiten ditugu jaietan-eta, zerbait irabaz dezatela umeek, gerrikoa eta txalekoa egitea, harriak ere kostatu egi-

ten direlako. Leioako Kirol Zale Elkartek asko laguntzen digu baina beti daude gastuak. »


Gure promesak



UNAI ARESTI

“Edozein harri jasotzeko indarra”

Hamabost urte besterik ez eta Zelai bezalako harrijasotzaile handiak txundituta utzi ditu. Sei urterekin hasi zen ekitaldietara joaten eta aurten Bizkaiko maila nagusiko eta Elgoibarko txapelketetan aritu da. Leioan Astobietak orain 25 urte eginiko marka ondu du ehun kiloko kubikoaz eta 113 kiloko kubikoaz hiru minututan hamabi jasoaldi eman zizkion Bilbon. Aretxaren ustez, Unai edozein harri jasotzeko indarra dauka eta etorkizun paregabea aurrikusten dio Leioako gazteari.



ITZAL ALDAMA

Hamabost urte dauzka eta gaur egun harrijasotzaileen artean neska bakarra da. Bost urte daramatza kirolean buru-belari sartuta eta teknika paregabea du. Egundak Itzalek lortutakoa jendeak ez duela baloratzen dio Aretxak, baina zailtasunak zailtasun, neskatoak lan bikaina egiten jarraitzen du.

kirola

Erdoitza Goikoetxea

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL M.

Hamazazpi urte zituela Europako hockey txapeldun izan zen eta harrezkero garaipenik garaipen dabil. Gorputz heziketako ikasketak amaituta, haur magisteritzakoak egiten dihardu hockeyak uzten dion denbora apurrean.

—Nola hasi zinen hockeyan?
—Ikastolan, zortzigarren mailan nengoela, gazte batzuk etorri ziren hockeya irakastera. Kurtso bukaeran Jolasetara joan nintzen eta han lau urte eman nituen.
—Hortik Real Sociedadera igaro zinen.
—Bai. Jolasetan egon nintzen azken urtean selekzioarekin hasi nintzen eta Madriler a bizitzera joateko esan zidaten. Selekzioan egoteko talde handi batean egon behar nuen eta Madrileko Valdeluzera joan nintzen. Hiru urte egin nituen han baina urrun nengoen eta ia ez nintzen etxera etortzen. Realekoek beraiekin jokatzeko proposatu zidaten eta baietz esan nien; etxera etortzeko aukera izan nuen.
—Madrilen aldaketa handia igerriko zenuen.
—Bai, oso handia. Hamazortzi urte nituela joan nintzen hara, baina urtebeterako baino ez, hango girora ez nintzelako moldatzen. Etxera bueltatu eta gauzak ondo pentsatu ostean, berriro itzuli nintzen. Askoz hobeto nengoen orduan. Urte osoan Madrilen bizi naiz, han selekzio osoa egoten da bilduta eta astean zehar elkarrekin entrenatzen gara. Asteburuetan Realarekin jokatzera

joaten naiz, bai Donostiara bertara, bai beste edonora kanpoan jokatzera tokatzen bazaigu.
—Gogorra al da hockeya?
—Bai, batez ere inongo laguntzarik ez dugulako. Nahiko bazterturik dago kirol hau; ikasketetan ere ez gaituzte apenas laguntzen. Hemen fitxa gutxi dagoenez ez dago lehiarik. Gutxi gara eta elkarri aurre egin behar diogu teknika hobetzeko.
—Gorenera helduta, asebeteta sentitzen zara?
—Gauza asko galdu ditut; lagunekin ez dut lehengo harremana eta familia gutxitan ikusten dut. Hockeya da dudan guztia. Urte batzuk besterik ez direla esaten digute, sakrifikatu egin behar dugula eta gero egingo dugula nahi duguna. Hori bai, hogeitamar urterekin. Baina urteak dira eta etekina atera behar zaie.
—30 aldiz baino gehiagotan deitu zaituzte selekzioan jokatzeko, olinpiadak ia eskura daukazdu.
—Bai, izugarria da. Itxaropen handia daukat, baina lehenik olinpiadarrerekoak ditugu Argentinan, oraindik partehartzea ez da erabat ziurra.
—Espainiakoarekin zabilta...
—Nik argi daukat Euskadiko selekzioa denok nahi dugun zerbait dela, munduari zer dugun erakusteko



“Joko Olinpikoetara joan nahi nuke”

modua dela. Baina nahiko zaila da, hockeyaren kasuan behintzat. Euskadikoarekin jokatu izan dugu eta oso onak gara. Orain norekin jokatu nukeen galdetuko balidate, Euskadikoarekin jokatzeko izugarri gustatuko litzaidakeela erantzungo nuke, baina estatuko selekzioarekin aritu naiz eta ziurtasuna eman didate, bizimodu bat ere bai, eta toki askotara joateko aukera. Hockeyari dagokionez nahiko gogorra izango litzateke orain bat-batean hari uko egitea. Euskadiko selekzioa lortzearen alde nago, baina apurka-apurka lortu behar da, ez bat-batean. Espainiako selekzioak izen bat ematen dizu politika alde batera utzita, kirolari soilik begiratuta. Nik kirolari begiratzen diot, baina beste batzuek ezberdin pentsatzen dute.
—Etorkizunari begira...

natura

Urtarrila

TESTUA: XABIER BUENETXEA

Prismatiko batzuen laguntzaz izurdeak ikus ditzakegu kostaldean

Hilabete bitxia da urtarrila, egun eguzkitsu apurrek paseatzera bultzatzen gaituzte baina bidean edozein txoritxo hiltzeko aitzakiaz dibersio bila dabilzan hainbat eskopeterorekin egingo dugu topo.
Espezie gehienak euren habitat egokienetan egoten dira eta elurrak besterik ez ditu bultzatzen lekua aldatzera. Egunotan kostaldea gori-gori dago eta hainbat txonta, durdula, hegabera eta birigarro talde ikus daitezke.
Hilabete honen bukaera eta otsaila osoa itsas-mamiferoak behatzeko garairik egokiena izaten da; izurde eta kalderoi taldeak ikus daitezke gure kostaldean prismatiko batzuen laguntzaz. Itsas-labarrretan belatzen araldiaren edo zeloaren hasiera ikus dezakegu eta oraindik goiz bada ere, beharbada belatz gorriarena ere bai. Urubiak

ere bizi-bizi dabilta eta sasoi honetan uluka entzun ditzakegu. Basoetan egoten dira baina hontzak bezala kanpandorreetara, lasategietara eta ganberatara egokitzen ari dira. Ezin ditugu ahaztu Butroe itsas-adar paregabea negua igarotzen ari diren lertxunak; bertan sei gartzeta eta zazpi lertxun erreal dabilta, berrogei mingor baino gehiago, martin arrantzaleak...
Zuhaitzei dagokionez, bitxia da hosto galkorreko hainbat zuhaitz loratzen ari direla ikustea, adibidez erreken ondoan egoten diren urritzak eta haltzak. Urtarrileko hilbera ere egokia izaten da fruta arbolak inauteko edo kimatzeko. n



Goian, izurde bat; azpian lertxun bat habiatik abiatzen



HIZTEGI ERIZUNLOREKOA

uk

Irabazi afari bat 2 pertsonentzako

ALGORTAKO TXINATARREAN

Non dago?

Bidali zure erantzuna eta asmatzen duzuenon artean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu. Erantzunak, gutunez, telefonoz, faxez edota posta elektronikoz bidali ditzakezue.

.....

UK Uribe Kostako Aldizkaria:
Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa 48990 GETXO
171 posta kutxa / Tel. Fax. : 491 13 37
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net

* Oharra: zozketan parte hartzeko beharrezkoa da UK aldizkariaren urteko kuota ordaintzea (2.000 pta. urtero)

Jan

aitor elizegi



Bakailao xerrak txipiroi rissoto-aren

gainean perretxiko pil-pilarekin

Bakailao bizkar bat eskaldatu eta xerrak atera eta gorde. Beste alde batetik, bakailao-pil-pil bat egin —azalak eta guzti—; honi erantsi koilarakada bat perretxiko-pure. Txipiroi risotto bat egin eta horren gainean bakailao xerrak ipini; ondoan, julianan moztutako txipiroiekin sorta edo azao bat jarri. Azkenik, pil-pil saltsa gaineratu eta txipiroi olioarekin atondu. n



edan

tsaso arana, jolastoki-koa



Kata

Fillaboa 99 zuria
Mahatsa: alvariño %100 •
Alkohola: %12 •
Bodega: Granja Fillaboa SA, Pontevedra •
Jatorrizko lizendapena: Rias Baixas •



Lasto kolore horia duen “alvariñoa” dugu hau, distiratsua eta gardena. Sudurrean aroma freskoak eta afrutatuak, lore ikutuak ere igertzen dira. Ahoan, gauza bera, zapore afrutatuak eta loreak agertzen dira. Alkohola eta garraztasunaren arteko oreka bikaina du ardo honek. Arraina eta mariskoa jateko lagun ezin hobe. n

Jakin

Beira

Ardoa ontziratzeko beira erabiltzea kortxoarena bezain zaharra da. Beira, dituen hainbat ezaugarriengatik substantziarik egokiena da ardoa ontziratzeko: duen gardentasunak, esterilizaziorako erraztasunak, ez diote ardoari aldaketarik eragiten eta, gainera, kolore aniztasunak argiaren eraginetik babesten du ardoa.

Beira zuriak ultrabioleta izpiak izan ezik beste argi izpi guztiak pasatzen uzten ditu, horregatik hain zuen ere, ardo zuriak botila zurietan lehenago zahartzen dira. Beira berdeak izpietatik gehiago babesten du ardoa eta horregatik zapore sendoagoa ematen dio.

lagundu...

...UK egiten...

...bele zure harpidetza fita (kusi 2. orrialdea)

eskola partikularrak

EUSKARAZ

OHO - DBH
ikasgai guztiak

esperientziaduna

zure seme-alabak eskolan laguntza behar badu, deitu / T: 94 460 11 83



Argazkian Aitor Lores

basotxu

ARGAZKIA: M. M. /
TESTUA: J. A.

“Kazulatxoak” etab.

Basotxu, ederto jan eta edateko “taberna”

Etetik kanpo afaltzea edota bazkaltzea erabakitzen dugunean ohiko jatetxeetara jotzeko joera izaten dugu, baina zergatik ez, adibidez, taberna batera joan eta “kazulatxo” bat —edo bi— jan? Aukera hau, eta aurrerago azalduko ditugun beste batzuk, eskaintzen ditu Aitor Loresek Berangoko bere tabernan. Aitorrek eta Idoia haren neskalagunak zehatz esanda. Izan ere, lan taldean elkarragaz dihardute. Hostalaritzan eskarmentu handikoak dira biak (taberna duela zortzi urte zabaldu zuten, aurretik beste batzuetan lan egin

ondoren) eta hori hainbat gauzatan igertzen du hara hurbiltzen denak: zerbitzuaren goxotasuna, jakien prestaketa, lehengaien kalitatea...


Baina zer da Basotxun hara gosea asetzerat doan topatuko duena? Ba, Aitorren esanetan bertako betiko platerak: tripakiak, txarripatak, piper beteak... Eskaintza zabala da, baina aukeratzekotan ezin utzi daitezke probatu barik “penkak kabral gaztazko saltsan” eta makailoa, bai pilpilean bai Bizkaiko erara. Aurretik entsalada bat ere har daiteke eta hainbat postre bertan eginak.

Honez gain, eta azkarrago edo horrenbeste jan nahi ez badugu, leku egokia da Basotxu ogitarteko edo hanburgesa on bat jateko. Amaitu aurretik, ezin daiteke aipatu barik utzi kalitate-prezio erlazioa bikaina.

Aldizkariaren atal honetan azaldu izan direnei buruz gauza onak besterik ez ditugula esaten leporatu izan digu inork; horrelaxe da, bai, izan ere, inguruan, Uribe Kostan eskaintza askotarikoa da baina atal honetako izenak dioen bezala (Non Jan) bisitatzea merezi duten jatetxeek eta taberne besterik ez dute lekurik hemen. n



ALGORTA



Zure
Zure

Publizitatea
aetazilbur

Hemen
nemen

491 13 37
73 31 194

Basotxu Taberna
Basotxu auzoa 4, Berango
Domeketan itxita T: 94 668 06 64

Inauteriak

Doinua: Aita izena

Josu Arroyo

I
Jaietan beti huts egin gabe inauteriak aurrena irribarreak estaltzen ditu hainbat neke eta pena ezin ukatu, bistakoa da umoretsuak garena gripea behingoz akabatzeko sendabiderik onena giro freskoa egonagatik festak berotzen du dena.

II
Inauteriek ekartzen dute mozerro baten premia lagun taldea ados jartzea ez da samurra auzia irudimenaz jokatzu gero edozer da egokia entzun ezazu, lotsati horrek lotsa ez da aitzakia inork ez gaitu ezagutuko horrexek dauka grazia.

III
Brasil aldean ospatzen dira beste inon ez bezala “samba” doinuak, dantza sutsuak giroa ez da makala Euskal Herrian irrika hori piztuko da berehala Karnabaletan mozerrotzen da euskal nortasun apala jairako grina aldarrikatuz kanpora jende formal!

IV
Jantzi bitxia Galindo horren uniforme kirasduna disfraz horrekin harrera behintzat ez da izango txukuna Pinochetena egitekotan ez zaitez izan biguna Maradonaren itxurak ere merezi du erantzuna aukera asko ditugu eta horra nireak, laguna.

“Guk be oki gendun laratza”

Barrika aldetik oraindino inor ez gendula sekula be elkarriketatu eta, sasoia zan duda barik. Esan eta egin, hemen daukagu Barrikako Juanita Uriarte andrea. Egia esan, elkarriketa egin beharreko egun hartan nahiko presaka nenbilen, badakizue, gaurko “estres” edo larrialdi madarikatu honek erdi itota. Juanitak badauka horren gainean be zer esan. Halan eta duztiz bere, hain ondo pasa gendun, hain gustora egon gintzen, ezen konturatu orduko neuk uste baino askoz denbora gehiago emon gendun alkarregaz. Egunen batean, gehiegi eskatutea ez bada, gura neuke nik andra honek bezain ondo eta erraz euskeraz berba egin, ez da-eta hain euskaldun garbi eta aberatsik edonon topaten. Are gitxiago, bertoko euskeraz. Goazen “entzutera”:



Juanita Uriarte

TESTUA: ANDONI LLOSA

—Zu Barrikako zara, ezta Juanita?
—Bai, Barriken jaio nintzen, nire baserrin izena “Arriaga” da, esaten zan “Arria”. Hori dao kasik Urdulizen, Sopelatik Urdulizera zoazela... “Mecánica La Peña” bakizu? Ba, horrantza goazela goien, ezkerreko alderdin dao nire jaiotetxe. Baserritik Ayuntamintxure eta elixera hiru kilometro-edo dao, asao dao. Hartan denporan, mutilen eskola egoten zan Ayuntamintxun azpin, eta neskana ixen zan mojana, lehengo Asilon, Elorduín. Joaten gintzezan hiru kilometro oinez eta bazkarire ez gintzen etorten etxera, amak iminte oskun otzaratxu, eta otzaratxun baa... bokadillok, iminte oskun txorixo apur bet, sagar bat edo beste... eta hagaz egoten gintzesan gauerarten. Eta ordun ba, han egoten gintzezan gu, negun hotzak hilik, ha bazkari jaten. Asilon egon zan kosinera bat, andre

amantaldune, eta klasera igon baino lehenago egoten gintzezan hotzak hilte ogi zatitxu jaten alkarren on-don, harik eta ordu bi t'erditen klasen sartu arte. Eta negun haren amak esate oskun “pasa umetxuk barrure, pasa barrure” eta eroten ginduzen barrure. Hantxe egoten ziren aittitte-amamantzako braserutxuk, eneee... pozik egoten gintzezan berotan egoteko!
—Haiek denporak!
—Bai, bai..., baina nik hamar ur-terarten hara gitxi joan nintzen ze... gaur denpore txarra dalakon, biher, baa, ama plazara joan da ta umek jagon egin behar direlakon, etzi itaurren egin behar ta... itaurren bakizu zer dan?
—Idi aurrean edo?
—Bai. Hori askotan egin nendun neuk. Ondo eroten nenduzelez ganaduk, aitteri gustaten jakon nik itaurren egite... holan, eskolan faltak

zenbetgure. Eskolan mojakaz ez gendun ezer bere egiten, ezer bere ez... errezeiten baino besterik ez gendun ikesten. Gero Errepublikae etor zan, eta etor zanen eskola imin oskun Goerrin, oki gendun andereño bat Gallartako, ha ixen zan on-on-ona! Hiru urten zenbet irekatsi oskun hamalau urteko neska-mutilei. Eta nik hamahiru urterarten ez nendun erdera ikesi, holan-holan. Memerin dekot eskola... pisu biko baserri ixen zan, handi, eta goien dana imini euden eskolarako.
—Pisu biko baserri esan dozule, Juanita, zelangoa zan zuon jaiotetxea? Baserriko gauzen izenak-eta jakingo dozuz...
—Jakingo ez dotaz ba, jakingo ez dotaz. Baserriko bizimodu zan... behar ta behar, idik okiten genduzen solon beharrerako, esnerako behiek eze esne asko saltzen zan... amak esne eroteun Areatara. Umetan gauen afaritxu jaten egoten gintzen tximinien bueltan-bueltan ohera joan baino lehenago, eta esate oskuzan hurrengo eguneko beharrak, hurrengo eguneko beharrak preparaten: azpik atara edo garbittu, bedarrak ebagi, goixe-goixen ganaduri armosu emon, guk baino lehenago, eze haik emoten eudenaz bixi behar zan. Gero geuk egiten gendun armosu, morokile. Lantzen

behinetxu beten igual egoten zan txarrin sarteneko, txorixo zatitxu edo urdeie taloaz... ondo akordaten naz... hiru kuartuko baserri zan, gero sute, goien kamare...
—“Kamare” zertarako zan?
—Indabak eta artaburuk, kinpule, piperrak... baserrin koisten zan duzti gordeteko. Hatan denporan baserrin indaba eta arto asko ereiten zan. Gari bere ezetu dot nik... bueno, baserrin ganen gagoz berbetan ezta? Kuartuk eta kamare egoten ziren baina danok egoten gintzen beti suten. Suten guk okiten gendun...bakizu “Sorginen laratza” programa, ETBn? Ba guk be oki gendun laratza, baina esaten geuntzen laratzu. Tximinek eukiteun burni bet altu, eta burnittik eskegitte egoten zan katea bat, malla* handikaz, eta hor egoten zan lara-tzu... kako bat eukiteun goien eta beste bat behean. Goiko ixeten zan haitan mallatan sartzeko, katean mallatan, eta beheko ixete zan lapiko eskegitteko... edo “galdarillek” eskegitteko, “galdarille” zan esne egosteko lapiko antzeko. Lapikok eta kafetere ixeten ziren burnizkok, burni gogor-gogorra... ze indaba gozok egiten ziren burnizko lapikon! Kafeaz be... kafea egiten gendun hiru-lau egunerako bai ezta? Eta nik ez dakit zer zala-eta ixengo zan, baina



Arriaga baserria



Juanita, iloba eta hil jakon senarra, Marcial Larrazabal

txikerretarik ama ikusten gendun kafe egin ta osten kafe barrun sartzeula ilenti, ilenti. Ilenti da brasetik ataratako egur zatitxu, eta gure etxen beti sartzen gendun ilenti kafen.
—Txaparik ez zenduen euki suten, ala?
—Ni soltera nagola ez. Dana egiten gendun surten, egurren ganen iminten gendun trebere eta haren ganen lapikok eta eskegi ezin ziren gauzak... dana egiten gendun surten, flanak eta duzti. Gero be okiten gendun burrunzti. A ixeten zan burni luze bat punta zorrotzaz, txorixok erretako edo. Atara kontuk... plantxe bere, tximinidune ixen zan... ordun denporan mutileri be “arreo” egin behar ixeten jaken ezkontuteko, eta behin arreo plantxaten gau duztin egon nintzen plantxeaz. Gau duztin sue eginte eta tenazakaz brasak koxi, plantxa betatu eta aurrera, betatu eta aurrera...
—Zelango sasoi gogorrak, Juanita...
—Bai, baina ze pozik bizi gintzen... eze prisarik ez zan egoten, inori ez jakon ezer bere exijiten... amak lantzen behinen ekarten oskun zapatatxuren bat edo abarketak, eta poz-pozik gu erregalukaz. Eta ezer bere ekarten ez eunean, geuk

sekula be ez geuntzen exiji. Egoten zanagaz konforme bixi, besterik ez.

HIZTEGIA

- Asao: urrun
- Hagaz: harekin
- Iminte oskun: ipintzen euskun, zigun
- Eroten ginduzen: eroaten gintuen
- Jagon: zaindu
- Nenduzelez: nenduzenez, nituenez
- Zenbetgure: zenbatnahi
- Oki: eduki, sarritan, “euki” be esaten dau
- Imini euden: ipini zuten
- Sute, surte: sukalde
- Koisten: hartzen
- Ezetu: ezagutu
- Sartzeula ilenti: sartzen zuela ilendi
- Trebere: “trebele”
- Betatu: bete

*malla: maila esaten duenean, katearen piezak dira

“Tabernatxu” jatetxea

• MENUAK ASTEAN ZEHAH

• ASTEBURUETAN GAUEZ,
MENU BEREZIAK

Zientoetxe 39, GETXO. T: 491 16 61

DOVER

IDIO -

Juan Bautista Zabala 12, 2.
ALGORTA

460 00 38
460 63 41

IKASTARO TRINKOAK

UDA ETA NEGUA

GOIZEZ ETA
ARRATSALDEZ

UMEAK, GAZTEAK
ETA HELDUAK

Ingelesa

Frantsesa

Alemanier

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SAN IGNACIO

Autoeskola

Baimenak:

LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1

Telletxe 13
T: 460 27 99
ALGORTA

Urkiola 4
T: 430 06 05
ALGORTA

Laubide 3
T: 676 48 39
SOPELA

I

Iñaki

Bitxitegia

W

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3

T: 4302345

Algorta

horoskopo a

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Osasun aldetik ez bazara ondo sentitzen kirola egiteko beharrarengatik izango da. Gorputza ez dago jateko eta lo egiteko bakarrik. Mugitu ipurdi potolo hori!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Erabakiak hartzerakoan ez duzu bildurrik eduki behar. Baina ez ahaztu zerbait txarto badoa, zure inguruan dabilen bat baino gehiago pozuko dela. Mugitu ipurdi potolo hori!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Harreman gehienak lokarriak dakartzatela jakin behar zenuke honezkero. Zure nortasun eta izaera horretara moldatzea komeni zaizu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Oso apal eta larri sentituko zara. Ez ahaztu mundua egoera eta leku berriz beteta dagoela. Oraindik badago ikusi eta bizitzeko asko.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Osasun aldetik ondo bazabiltza ere kontuz lan gehiegi egitearekin. Gauzak pilatzen bazaizkizu, lasaitasunez hartu eta zure ahalmenen arabera antolatu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Diruarekin arazorik izango ez baduzu ere, suertatuko zaizun negozio posible batekin arretaz ibili; zeure interesen aurkako bihurtu dakizuke.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Proiektu berri bat aurrera eroateko momentu egokian zaude. Ahalegin eta interesa guztia norabide horretan zuzenduz gero lortuko duzu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zorioneko sasoi txoi bat datorkizu. Luzaroan desiratutakoa beteko da. Orain une hau aprobetxatu besterik ez duzu egin behar.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Adinak benetan zer esan nahi ote duen etengabe galdetzen diozu zeure buruari. Kontu horiek alde batera utzi eta denborarik ez galdu.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Zure osasun egoera ez da larria baina elikadura gehiago zaindu behar zenuke. Barazki eta fruta gehiago jateak ez dio inori kalterik egiten. Txuleta gutxiago mesedez.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zure bikotearekin harremanak tentsio aldi batean daude, baina ez duzue larritu behar. Berba eginda gauza asko konpontzen direla kontuan izan.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Ustekabeko gertaera batek lur jota utziko zaitu baina, hala ere, ez duzu horren eragina luzaroan pairatuko. Susto bat besterik ez. Diru iturri berri posible bat. Adi egon.

gurutzegrama

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

EZKER ESKUIN:

1- Gaztelera 2- Poztasun 3- Zezen zikiratu. Su. Boroa 4- Opila. Ondo 5- Kontinente bat. Non atzizkia 6- Selenioa. Arnas ezak hil. Modua, tankera 7- Momentu. Pluralean zuhaitz mota 8- Nekagarria. Interjekzioa 9- Unatu. Landare-mota 10- Errepublikatuz, fruitu tropikala. Labetik ogia ateratzeko palak

GOITIK BEHERRA:

1- Ahalmenak 2- Ondoko 3- Afrikako estatua. Eguzki 4- Titania. Hiru adierazteko aurrizkia. Duda partikula 5- Areriotasun 6- Zelai. Ekumume izena. Bostehun 7- Zamaria. Muga 8- Neukan. Bokalek errepublikatua. Haizen hori 9- India. Zama-lanak egiteko makina 10- Lehenengoa. Soka-saltoan, sokak bira egiten dituela egiten diren jauziak

uk27

komikia

REC

ea, laztantxo..
bultz
egin

ikusiko duzu... zein
polita izango den
gurea...

REC

uf, uf

badago, andrea...
eutsi zure
umea

REC

baina, baina...
marisa!
beltza
da eta!

bai, zera!
inauterietarako
mozorrotuta dago
eta!

REC

BUKATU
DA

REC JAI ZORIONTSUAK!

Bodeguilla

Butron

gurean euskaraz!

Bidebitarte 5 ALGORTA

GAZTANAGA

INTERSPORT




Lortu zure puntuak
HEMEN!!

Kiroletarako
behar duzun guztia!

Amesti 8 T: 4910605 ALGORTA	Sarrikobaso 42 T: 4300397 ALGORTA	Sabino Arana 93 T: 4646617 LEIOA
-----------------------------------	---	--

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO	Telbete 13 T: 460 02 88 ALGORTA
--	---------------------------------------

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”



Elkarte Anonimoa

Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212

ZERBITZU TEKNIKOA
Tf. 4230213
48001 BILBAO

BILBOMICRO



Kalitatezko Irakaskuntza Euskalduna. D eredua

GOBELA IKASTOLA

HERRI IKASTETXEA

Goiherri 14 - Neguri GETXO 48992 TLF. Fax.: 460 0803

ASIER ANDUEZA

GORLIZ IRRATIKO ZUZENDARIA

“Geure helburua informazio lokala ematea da”

Gorliz Irratiak hamar urte bete ditu eta Asier Andueza oso pozik dago. Bi urte eta erdi daramatza zuzendari lanetan, zazpi irratian, eta hasierako helburuak ezin hobeto bete direla uste du. Hurrengo erronka, irratia profesionalizatzea izango da.

Nola lortu irrati perfektua? Ez dago formula magikorik. Egotekotan lanean dago. Irratia ordurik gabeko lana dela esan daiteke, edozein une da egokia lan egiteko. Gainera, programa batean lan handia egin bada, horrek erantzuna dauka audientziaren aldetik.

Zerk eraman zintuen Gorliz Irratira? Irratia egungo egoitzan jarri zutenean udarako jende gehiago behar zuten. Orduko zuzendaritzak herrian zehar kartelak jarri zituen, Gorlizko lagun batek horren berri eman zidan. Kazetaritzako lehen urtean nengoen orduan. Elkarrizketa egin zidaten, ostegun batean izan zen hori, eta igandean banengoen programa egiten. Eta orduko ordutegiarekin jarraitzen dut, igandean eguerdikoa hamabietatik ordu bietara.

Zuzendari izatea erronka handia al da? Izugarria, zeren irrati txiki bateko zuzendari izateak gauza guztien arduraduna izatea esan nahi du. Hasieran ez nuen esperientzia handirik; nork irakasten dizu zuzendari izaten? Poliki-poliki ikasten hasi behar, eta horrek badauka bere alde positiboa. Hala ere, irratian badago zuzendaritza bat eta bertan arlo ezberdinetako arduradunak elkartzen dira. Zoratzeko modukoa izango litzateke lan guztiak neure gainean hartzea!

Hamar urte beteta, pozik lortutakoarekin? Bai, zeharo. Irrati hau kazetaritzarekin inongo harremanik ez zuten herriko lagun batzuen proiektua izan zen eta ordutik hona asko aldatu da. Teknologia aldetik ekipoak asko hobetu dira, fonoteka ere ederki hazi da eta asteroko programazio zehatz eta finkoa daukagu. Horra helduta, zuzendaritzaren helburu nagusia gaur egun irratia profesionalizatzea da praktiketan dagoen jendea ahaztu gabe. Aldaketa oso handia izan da baina nire ustez onerako; hamar urtetan zehar jarraitzea eta orain daukagun mailara heltzea lorpen handia izan dira.

Ez da eginkizun erraza izango... Badakigu profesionalizazioak bidean gauza ugari uztea ekartzen duela. Batzuek esaten dute freskotasuna edo lehen zegoen izpiritua galtzen dela baina ez dago beste irtenbiderik: hori egin edo, une batera helduta, irratia itxi behar.



Eta urte hauetan zelan joan da entzuleen kontua? Audientzia garrantzitsua da baina ez da gure helburu nagusia. Egia da alde horretatik oso pozik gaudela, azken hilabeteetan jende askok entzuten digulako... Dena den, gure helburua informazio lokala ematea da; informazio zehatza programazio serio eta profesional baten barruan.

Irratian luzaroan jarraitzeko asmorik bai? Irratia gustatzen zait, hedabiderik gustokena dut eta beti aritu izan naiz honetan. Proiektu polita da herri irrati batean egotea, gauza ugari ikasten dira, baina etorkizunean zer egingo duan ez dakit. Irratian jarraitzea gustatuko litzaidake baina ezin da aterik itxi.

Zuzendari bezala erronkarik? Dugunarekin jarraitzea eta hobetzea. n

at z e r a b e g i r a



ERROMOTARRAK UMOREZ

BITOR EGURROLA

Inauteri garaian gaude, bai, baina ez pentsa argazkian azaltzen direnak Inauteriak ospatzen ari zirenik; Erromoko lau gazte ezkontzeko zorian zeuden: Jose Antonio Fernandez “Zurdo”, Ander Egaña, Peña eta Francisco Lopez “Paco” (GB). 1968ko uztaila zen, eta, ezkongabetasunari agur esateko 30 lagun elkartu ziren Berangoko Bar Serapion (gaur egun Berangoko Batzokia).

EZKER-ESKUIN

Julio Fernandez “Camarero” (GB), Aurelio Tobar “Burgos” (GB), Julen Aresti, Francisco Lopez “Paco” eta Ander Egaña



MUNGIA

oKINDegia

*Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez dan
benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15